

DEIALDIA, IKASTETXEETAKO LANGILEEN ARDURADUNAREN C MAILAKO 1 PLAZA (LEHEN MANTENTZE-LANETAKO ARDURADUNAREN LANPOSTU OSAGARRIDUNA, C MAILAKOA) OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO, HEZKUNTZAKO, HERRITARREN PARTAIDETZAKO ETA EUSKARAKO ALORREAN

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko abuztuaren 7an egindako bilkuran honako erabaki hau hartu zuen:

Behin amaiturik Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko **IKASTETXEETAKO LANGILEEN ARDURADUNAREN C MAILAKO** 1 plaza oposizio bidez betetzeko hautapen-prozesua –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko azaroaren 17an hartutako erabaki bidez onetsi zen, eta 2025eko 242. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 4koan, argitaratu zen–, eta bat etorrita hautaketa-epaimahaiak emandako izendapen-proposamenarekin, behin eskatutako agiriak aurkeztuta, eta bete dadin Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen 113/1985 Foru Dekretuaren 32. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Iruñeko Udaleko funtzionario izendatzea, IKASTETXEETAKO LANGILEEN ARDURADUNAREN C MAILAKO lanposturako. Plaza jarraian xedatutakoaren arabera esleituko zaio:

IZENDATUA	ESLEITUTAKO PLAZA	ARAU BIDE JURIDIKOA
RODRÍGUEZ PÉREZ, ANTONIO FERNANDO	1-307800-1	FUNTZIONARIOA

2. Izendatutako izangaiak **2026ko ABUZTUAREN 27an** hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

3. Agintzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) argitaratu dadila.

Erabaki honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

- BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- GORA JOTZEKO errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko abuztuaren 7an.- Tokiko Gobernu Batzarreko jarduneko idazkaria, Zaloe Basabe Gutiérrez.